



# EROSKI TALDEKO KONTSERBAKO ATUN IRAUNKORRA EROSTEKO POLITIKA

EROSKI TALDEA arrantza iraunkorrarekin konprometituta dago, atunaren eta gainontzeko itsas espezieen biziraupena epe luzean mantentzea xede duelako. Aldi berean, EROSKI hitzematzen du Lanaren Nazioarteko Erakundeak ezarritako lan-baldintzak bermatuko dizkiela langile guztiei, tripulaziotik hasita prozesatzeko fabriketaraino. Horregatik, Eroskik ISSFren (Arrantzaren Iraunkortasunerako Nazioarteko Fundazioa) printzipioekin bat egin du, eta kontserbako atuna (atunzuria edo iparraldeko hegaluzea barne) erosteko politikan ezinbestean bete beharreko baldintzat hartu ditu, komertzializatzen diren marka guztietan. Jarraian, politika horren berri emango dugu.

## **EROSKIk kontserba hauek komertzializatzen ditu soilik:**

Legeak ezarritako moduan arrantzatutako atuna, AEEren (Arrantzaren Eskualde Erakundea) lizentziarekin eta baimenarekin, agintariei aitortutakoa (banderari dagokion herrialdea eta AEE) eta erakunde ofizialek araututakoa.

Atunari dagokion guztia ezagutu behar dugu (trazabilitatea oso-osorik): harrapaketa-ziurtagiria, arrantza-baimena duen itsasontzia, itsasontziaren izena, IMO zenbakia (matrikula bakar unibertsala), arrantza-data eta arrantza mota (kanaberarekin, inguratuta, tretzarekin, xaxian, etab.)

Atunetarako inguraketa-ontziak handiak ISSFren PVR itsasontzien erregistroan jasota egon behar dira, eta printzipio hauek guztiak bete behar dituzte: itsasontziaren identifikazio unibertsala adierazten duen IMO zenbakia, ISSF printzipioak, AEEren arrantza-baimena, jatorrizko herrialdea AEEren kide edo lankide boluntarioa izatea, aritzen den eskualdeetan arrantatzeko lizentzia, IUU zerrendetan ez agertzea (arrantza ilegala, arautu gabekoa eta aitortu gabekoa), jito-sareen erabilera debekatzea, marrazo-hegalen salerosketaren kontrako politika argia, pertsona behatzailea edo behatzeko gailu elektronikoa edukitzea, ontziratutako atun guztia gordetzeko politika (ezer ez baztertzea: arrantzatutako atuna ez da itsasora bueltatzen, itsasontziak haren zama-ahalmena lehenago betetzeagatik portura itzuli behar duenean ere), arrain-kontzentrazioak antzemateko gailuak (FAD) nola erabiltzen dituzten jakinaraztea AEEren organo zientifikoei FAD gailuei buruzko ohar-koadernoak erakutsiz, eta patroiak arrantza-xede ez diren espezieak libre uzteko prestakuntza jaso izana. Itsasontziaren patroiak edo jabe den armadoreak

harrapaketen datuak jakinaraztea arrantza-ordenaziorako eskualdeko erakunde atunketariei, haiek atuna kudeatzeko eta mantentzeko duten erantzukizuna babesteko. ISSFk hitzematzen du ez duela itsasontzi kopurua areagotuko; izan ere, itsasontzi kopurua areagotu izana da gehiegizko arrantzaren arrazoi nagusia. Itsasontzi bat erants daiteke soilik jabeak beste itsasontzi bati baja eman eta ontzia desegiten badu.

Atuna arrain-kontzentrazioak antzemateko dituzten gailuak (FAD) erabiltzeko gomendioak errespetatzen dituzten itsasontzietatik etortzea: itsasontzi bakoitzeko FAD kopurua murriztea eta sarean korapilatzea ekiditen duten FAD gailuak garatzea, dortokak, hegaztiak eta marrazoak ez daitezen harrapatuta geratu. Atuna xede ez diren espezieak (marrazoak, dortokak, izurdeak, hegaztiak eta kumeak, besteak beste) nahi gabe arrantzatzea (bycatch) minimizatzen duten itsasontzietatik etortzea. Horretarako, ontzietako arrain-kontzentrazioak antzemateko gailuek (FAD) sarean korapilatzea ekidin behar dute, zundek FAD horien azpiko arrain multzoen tamaina eta espeziea detektatu behar dute eta espezie babestuak uxatzeko ultrasoinu-sistemak erabili behar dira.

Atuna Nazioarteko Lan Erakundearen arabera (Arrantzari buruzko C188 Hitzarmena, 2007) tripulazioaren lan-eskubideak errespetatzen dituzten itsasontzietatik etortzea.

Atuna AEE (Arrantzaren Eskualde Erakundeak), edo, horrelakorik ezean, ISSFren batzorde zientifikoak onartutako debekuak eta geroalekuak errespetatzen dituzten itsasontzietatik etortzea.

Atuna bizirik dauden espezieak itsasora bueltatzeko teknika egokiak baliatzen dituzten itsasontzietatik etortzea. Horretarako, tripulazioari prestakuntza egokia eman behar zaio, eta material espezifikoak erabili behar da. Halaber, txirrista-sistema bat ezarri behar da xede ez diren espezie babestuak biririk itzultzeko itsasora.

EROSKI ontzat ematen du ISSFk atuna inguraketa-sistema bidez arrantzatzeko FAD gailuak erabiltzeko baimena eman izana. ISSFk eta haren Batzorde Zientifikoak defendatzen dute FAD gailuak erabiltzeak berez ez diola munduko atun-stockari mehatxu egiten, eta benetako arazoa ez direla FAD gailuak, munduko ontzi atunketarien kopurua gehiegi hazi izana baizik. Horrez gain, EROSKI ontzat ematen du ISSFren konpromisoa hartu izana sarean korapilatzea ekiditen duten FAD gailuak material biodegradagarriekin garatzeko, eta itsasontzi bakoitzeko FAD kopurua mugatzeko eta FAD gailuen posizioak erregistratzeko erabakiarekin ere ados dago, baita harrapaketen berri emateko beharrarekin ere.

EROSKI ez du FAD naturalekin -hala nola hildako animaliak (baleak, esaterako)- arrantzatutako atunik erosiko.

EROSKI ez du jito-sareekin arrantzatutako atunik onartuko, Europar Batasunak debekatzen baititu.

EROSKI ez du Arrantzaren Eskualde Erakunde (AEE) baten IUU zerrenda (edo zerrenda beltz) ofizial batean jasotako ontziek harrapatutako arrainik onartuko.

EROSKI hornitzaile guztiei eskatzen die printzipio horiek bere egin ditzaten, eta horiek betetzen dituztela egiaztatzeko, nazioartean ospea duten erakundeek (AZTI eta MRAG, kasu) kanpo-ikuskaritza egiten diete.

Erosketak egitean, EROSKI AEE, ISFF eta AZTI erakundeek gomendioak jarraituko ditu, eta, besteak beste, gehiegi arrantzatutako diren arrain-populazioei buruzko informazioa jasoko du.

Bestalde, EROSKI kanaberarekin arrantzatutako iparraldeko hegazuak saltzen du eskusiboki EROSKI markaren sorta guztian, arrantza mota hori baita iraunkorrena.

Itsasontzi batek harrapatutako arrainak ezin dira itsasoan ontziz aldatu, ez itsas zabalean, ez eta EEZ zonetan (zona ekonomiko eksklusiboak), eskualdeko uretan edo artxipelagoetako uretan ere (SFF neurrien arabera, horretan salbuespen dira Papua Ginea Berriko artxipelagoko uretan egindakoak).

Hona hemen ISFF printzipioak xehetasunez:

<http://iss-foundation.org/knowledge-tools/publications-presentations/conservation-measures-commitments/>

Hona hemen ISFFk AEE bakoitzean gomendatutako azken neurriak:

<http://iss-foundation.org/what-we-do/advocacy/position-statements/>

## **ATUNA % 100 ISFFren PVR (PROACTIVE VESSEL REGISTER) ZERRENDAN ERREGISTRATUTAKO ONTZIETAN ARRANTZATUA**

Eroskik hitzematzen du erosten duen kontserbako atuna ISFFren “Proactive Vessel Register” zerrendan erregistratutako arrantza-ontzietatik datorrela bakar-bakarrik. Eroskik irizten dio ISFFren PVR zerrenda arrantza-ontziak eraginkortasunez, sinesgarritasunez eta era objektiboki egiaztagarrian identifikatzeko modua dela. Ontzi horien armadoreek arrantza-tokietako iraunkortasuna hobetzeko konpromisoa hartu dute, eta ahalegin handiak egiten dituzte atuna arrantzatzeko jardunbide arduratsuak hobetzeko. Horrez gain, ISFFren urte anitzeko konpromisoak hartu dituzte bere gain. Betebehar hori 335 m<sup>3</sup>-tik gorako zamategia duten inguraketa-ontziei baino ez zaie aplikatzen, eta, horrenbestez, tretzaontziak (longliner) eta artisau-ontziteriak obligazio horretatik kanpo geratzen dira. Dena dela, EROSKI hornitzaileei eskatzen die PVRn erregistratuta dauden tretzaontziei lehentasuna emateko, erosketak egitean. Era berean, EROSKI eskubidea du PVRn erregistratuta dauden tretzaontzi horien aldeko apustua egiten duten hornitzaileei lehentasuna emateko.

PVR ontzien erregistro horretan jasota egoteaz gainera, ontziak “OK” BERDEA eduki behar du, PVRren printzipio guztiak betetzen dituela erakusteko: Ontziaren identifikazio unibertsaleko IMO zenbakia, ISFF printzipioak betetzea, arrantza-lizentzia, IUU zerrendetako batean ez agertzea (arrantza ilegala, arautu gabekoa eta aitortu gabekoa), marrazo-hegalaren salerosketaren kontrako politika argia, pertsona behatzailea edo behatzeko gailu elektronikoa, ontzian dagoen atun guztia gordetzeko politika (ezer ez baztertzea), patrioiak arrantza-xede ez diren espezieak aske uzteko prestakuntza jasotzea eta jito-sareak debekatzea.

**PVR erregistroaren esteka:**

<http://iss-foundation.org/pvr-database/>



## **EGOERA BEREZIA: PVR ZERRENDAN ERREGISTRATU GABEKO ARTISAU ONTZIAK**

Halabeharrez PVRn erregistratuta egon behar ez duten artisau-ontziek AEEk baimendutako ontzi-zerrendan erregistratuta egon beharko dute, arrantza burutzen duten tokian, eta AEEren kide den herrialde baten bandera eraman beharko dute. Baliteke AEEen erregistratuta egoteko betebeharririk ez izatea, ontziak duen luzerarengatik edo herrialde kideetako baten ZEE zonaldean baino ez duelako arrantzatzen. Kasu horretan, jarduten diren ur jurisdikzionalen herrialdeak igorritako arrantza-lizentzia eduki beharko dute. Halaber, baldintza hori betetzen dutela egiaztatzeko, AEEren kide den herrialdeak (haren banderari dagokion eta arrantzatu duten zona ekonomiko eskusiboaren jabe ere denak) emandako arrantza-lizentziaren edo -baimenaren zenbakia online eman edo egiaztatu behar dute.

Indonesiako bandera duten ontzien kasuan, adibidez, **web-orri honetan egiaztatu daitezke:**

<http://rvia.kkp.go.id/data-kapal>

## **NAZIOARTEKO LAN ERAKUNDEAREN ARRANTZARI BURUZKO 188 HITZARMENA BETETZEA**

Eroski Taldeak, haren Erosketa Politikan, konpromisoa hartu du haren dendetan Nazioarteko Lan Erakundearen arabera (Arrantzari buruzko 188 Hitzarmena, 2007) tripulazioaren lan-eskubideak errespetatzen dituzten ontzietatik datorren atuna soilik saltzeko.

**Hitzarmenaren xede nagusia da honako hauek bermatzea:**

1. Lan-baldintza duinak Nazioarteko Lan Erakundearen arabera, eta, edonola ere, herrialde batzuetan ohikoak diren haur-lana eta esklabotza desagerraraztea. 188 Hitzarmenak baldintza hauek biltzen ditu, besteak beste: lan egiteko gutxieneko adina, lan-kontratua egotea, gutxieneko soldata, gutxieneko atsedeen-orduak, oporrak, arreta medikoa, laneko arriskuen prebentzioa, gizarte-segurantza, gorputza aberriratzeko hil izanez gero, negozioaz kolektiborako eskubidea, azterketa medikoa.

2. Osasun-baldintzak: ontziak osasun-erregistroa eduki behar du. Herrialdea edo ontzia AECOSANen edo EBren Osasun Erregistroetan jasota egon behar dute, EBko kide den herrialdea den ala ez ikusita:

- **Europar Batasuneko bandera duten fabrikak edo ontziak:**

[https://ec.europa.eu/food/safety/biosafety/food\\_hygiene/eu\\_food\\_establishments\\_en](https://ec.europa.eu/food/safety/biosafety/food_hygiene/eu_food_establishments_en)

- **EBz kanpoko bandera duten fabrikak edo ontziak:**

[https://webgate.ec.europa.eu/sanco/traces/output/non\\_eu\\_listsPerCountry\\_es.htm](https://webgate.ec.europa.eu/sanco/traces/output/non_eu_listsPerCountry_es.htm)

- **Espainiako bandera duten fabrikak edo ontziak:**

[http://rgsa-web-aesan.msssi.es/rgsa/formulario\\_ue\\_js.jsp](http://rgsa-web-aesan.msssi.es/rgsa/formulario_ue_js.jsp)



## **HERRIALDEAK ETA ONTZIAK MURRIZKETAK**

IUU arrantza (ilegala, aitortu gabea eta arautu gabea) munduko atun-populazioen mehatxu nagusienetako bat da, eta giza eskubideen eta lan-baldintzen urraketarekin lotuta dago, NBEren arabera. Gainera, lehia desleiala da, eta arau guztiak betetzen dituzten ontziei ondorio sozioekonomikoak dakarzkie. Eroski Taldeak, IUU Arrantzatik datorren atunaz ez hornitzeko konpromisoa indartze aldera, ezarri du gure supermerkatuetan saltzen den edozein markako kontserbako atuna AEE (Arrantzaren Eskualde Erakundeak) kide edo lankide boluntarioak diren herrialdeetako bandera duten ontzietatik soilik etorriko direla. Gainera, ezarri du ez direla Europar Batasunaren zerrendan txartel horiarekin edo gorriarekin agertu behar, AEE arauak ez betetzeagatik eta arrantza ilegalaren, aitortu gabearen eta arautu gabearen (IUU arrantza) kontrako kontrolik ez egiteagatik. Murrizketa horrek atun-trontzoak prozesatzen edo horien fabrikazioan edo lanketan partzialki edo osorik parte hartzen duten herrialdeetako fabrikei eragiten die. Kapital europarra edo iparramerikarra eta IFS, BRC eta SA 8000 ziurtagiriak edo nazioartean ospea duen erantzukizun zibilari buruzko beste edozein ziurtagiri duten fabrikak salbuetsita daude. Modu horretara, Eroskik Lanaren Nazioarteko Erakundearen 188 Hitzarmenaren arabera iraunkortasunarekin eta giza eskubideekin konprometituta dauden atunketarien aldeko apustu irmoa egin du.

Europar Batasuneko herrialdeen zerrenda horia eta gorria Europar Batasunak berak eguneratzen du pixkanaka, eta egoera berdean edo gorrian daudela ohartarazitako herrialdeei egoera horretatik irteteko aukera ematen die, ezarritako neurri zuzentzaileen arabera. Horrenbestez, murrizketa behin-behinekoa, eta, beraz, itzulgarria da. Europar Batasunak ohartarazitako herrialdeen zerrenda eguneratuak ondoren zerrendatutako herrialdeak barne hartzen ditu, eta Eroski Taldeak horien kontserbako atuna erosteko betoa jarri du: Taiwan, Tailandia, Sierra Leona, Kanbodia, Liberia, Kiribati, Komoroak, Saint Kitts eta Nevis, Saint Vincent eta Grenadinak, Tuvalu edo Trinidad, Vietnam eta Tobago.

### **Europar Batasunaren estekak:**

[http://ec.europa.eu/fisheries/fighting-illegal-fishing-commission-lifts-yellow-cards-cura%C3%A7ao-and-solomon-islands\\_en](http://ec.europa.eu/fisheries/fighting-illegal-fishing-commission-lifts-yellow-cards-cura%C3%A7ao-and-solomon-islands_en)

[https://ec.europa.eu/fisheries/sites/fisheries/files/illegal-fishing-overview-of-existing-procedures-third-countries\\_en.pdf](https://ec.europa.eu/fisheries/sites/fisheries/files/illegal-fishing-overview-of-existing-procedures-third-countries_en.pdf)

<http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:02008R1005-20110309&from=EN>

[http://www.ilo.org/asia/media-centre/news/WCMS\\_619724/lang--en/index.htm](http://www.ilo.org/asia/media-centre/news/WCMS_619724/lang--en/index.htm)

[http://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/---asia/---ro-bangkok/---sro-bangkok/documents/publication/wcms\\_619727.pdf](http://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/---asia/---ro-bangkok/---sro-bangkok/documents/publication/wcms_619727.pdf)

## ATUN IRAUNKORRAREN HELBURUAK

Eroskik, iraunkortasunarekin duen konpromisoa betetzeko helburuarekin, iraunkortasuna errespetatzen duten ontzien aldeko apustu irmoa du. **Hala, Eroskik helburutzat ezarri du arrantza mota hauekin harrapatutako arrain bolumen zehatza lortzea:**

1. Kanaberarekin arrantzatutakoa (amu bizia edo Pole&Line eta xaxikoa barne)
2. Multzo asketan arrantzatutakoa (FAD gailurik gabe = FAD FREE)
3. MSC arrantzakoa
4. AAA ziurtagiriarekin (arrantza arduratsuko atuna) egiaztatutako ontziak, AENOR UNE 195006.
5. FIP arrantza (Fishery Improvement Project)

**Helburuak:** Eroskiren xedea da 4 arrantza mota horietatik datorren atuna jarraian adierazitako kopuruetara iristea osotara, gure dendetan erosi eta merkaturatzen den kontserbako atun guztiari dagokionez:

- 2017. urtea: % 10
- 2018. urtea: % 20
- 2019. urtea: % 30
- 2020. urtea: % 40

Helburu horiek betetzeko, Eroskik zure konpromisoa behar du, eta, horregatik, informazioa partekatuko dugu, AZTIren laguntzarekin. Era berean, Eroskik lehentasuna emango dio helburu horiek betetzen lagunduko digun atunari edo kontserbagileari.

**Atunketari Handi Izozteileen Ekoizleen Elkartearen (OPAGAC) FIP arrantza:**

<http://fisheryprogress.org/fip-profile/indian-ocean-tropical-tuna-purse-seine-opagac>

**MSC atun-arrantzategiak gaur egun:**

[https://fisheries.msc.org/en/fisheries/@@search?q=tuna&start=0&stop=10&\\_\\_start\\_\\_=fishery\\_name%3Asequence&\\_\\_end\\_\\_=fishery\\_name%3Asequence&\\_\\_start\\_\\_=species%3Asequence&\\_\\_end\\_\\_=species%3Asequence&\\_\\_start\\_\\_=gear\\_type%3Asequence&\\_\\_end\\_\\_=gear\\_type%3Asequence&\\_\\_start\\_\\_=status%3Asequence&\\_\\_end\\_\\_=status%3Asequence&search=search](https://fisheries.msc.org/en/fisheries/@@search?q=tuna&start=0&stop=10&__start__=fishery_name%3Asequence&__end__=fishery_name%3Asequence&__start__=species%3Asequence&__end__=species%3Asequence&__start__=gear_type%3Asequence&__end__=gear_type%3Asequence&__start__=status%3Asequence&__end__=status%3Asequence&search=search)

Eroskik bezeroei eta iritzi publikoari aldizka informazioa emango die iraunkortasunarekiko konpromisoari lotuta egin diren aurrerapen guztien gainean, eta, horretarako, gure komunikazio-kanalak erabiliko ditu (prentsa-jakinazpenak, web-orria, Consumer aldizkaria, Eroski Club aldizkaria, etab.).

## AENOR AAA ARRANTZA ARDURATSUA EGITEN DUEN ATUN ONTZITERIA

**Arrantza Arduratsuko Atunaren arrantzategia - “AAA” AENOR 195006 UNE Arauak baldintzak ezartzen ditu hainbat eremuri dagokienez:**

- Arrantza iraunkorra eta ingurumenean duen inpaktua
- Arrantza-lizentzia eta haren banderaren estatuaren baimena

- Ontziaren kokapen geografikok satelite-kontrola VMS bidez
- Arrantza-egutegia eta harrapaketak jakinaraztea
- Harrapaketen ziurtagiria, datu hauekin: ontziaren izena, espeziea, kopurua, marea, arrantza-zona
- Ontzi barruko pertsona behatzailea edo behatzeko gailu elektronikoa
- Gizarte- eta lan-baldintzak: Lanaren Nazioarteko Erakundearen 188 Hitzarmena (gutxieneko adina, lan-kontratua edukitzea, gutxieneko soldata, lanaldia, atsedeen-orduak, azterketa medikoa, kanpainen arteko atsedena, aseguru medikoa, laneko arriskuen sistema, gizarte-segurantzia).
- Ontzia EBren establezimenduen Osasun Erregistroan jasota egotea
- Ontziak IMO zenbaki bakarra eta unibertsala edukitzea
- Asegurua edukitzea (kalte pertsonalak, materialak, ingurumenekoak)
- Banderari dagokion estatuak kontrol-zentroa izatea
- Arrantza arduratsuaren jardunbide onak:
  - Sarean korapilatzea ekiditen duten FAD gailuak
  - Nahi gabe arrantzatutako animaliak behar bezala askatzea
  - FAD gailuak erregistratzea
  - Patroiei eta kapitainei jardunbide onei buruzko prestakuntza ematea
  - AEE eskudunak prestatutako eta egiaztatutako behatzaileak

“AAA” AENOR UNE 195006 eta FIT ziurtagiriak dituzten atunketarien zerrenda, gaur arte:

<http://opagac.org/apr/>

## ATUN ETA HEGALUZE ESPEZIEEN GAINEKO BETEARAZPENAREN OROIGARRIA

Iparraldeko hegaluzea: Gure hornitzaile guztiei gogoratu diegu “IPARRALDEKO HEGALUZE” izena har dezakeen kontserbako hegaluze bakarra “thunnus alalunga” espeziea dela. Horrenbestez, gogoratzen diegu ez dugula onartuko “thunnus alalunga” espezieaz bestelakoak “IPARRALDEKO HEGALUZE” edo “HEGALUZE” gisa saltzea, esaterako: Auxis Thazard (melba), Brama raii (papardoa), Scomberomorus sp (karita), Eutynnus alleteratus (atuntxikia), Sarda (berdela), Thunnus albacares (atun argia), Thunnus obesus (atun argia), Katsuwonus pelamis (atuna) eta Sarda Orientalis (ekialdeko hegaluzea). Izan ere, horiek dira iruzur-kasuetan gehien erabiltzen diren espezieak. Eroskik zorrozki betetzen du legedia nazionalaren 1521/84 dekretua, eta, horren arabera, iparraldeko hegaluze bakarra Thunnus Alalunga espeziea da:

<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1984-18430>

Horrez gain, Europako Araudiaren 5.3 artikulua ere betetzen dugu. Bertan ezartzen da estatu kidean usadioz ospea eman dion izendapenarekin sal daitekeela:

<https://www.boe.es/doue/1992/163/L00001-00004.pdf>

Orobat, Arrantzako Idazkaritza Nagusiaren ebazpenaren ildotik, Espainian onartutako arrantza- eta akuikultura-espezieen izen komertzialen zerrenda argitaratu da:

[https://www.boe.es/diario\\_boe/txt.php?id=BOE-A-2017-2907](https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2017-2907)

Iparraldeko hegaluzearen jatorriari dagokionez, dakizunez, Eroskik gure baxurako ontziek harrapatu eta Euskadin hustutako arrantza defendatu eta horren alde egiten du. Hala, eskubidea dugu arrain hori soilik edo nagusiki hornitzen duten markei eta kontserbagileei lehentasuna emateko bakar-bakarrik.

**Atuna:**

Hauek dira ondorengo izendapenetarako onartzen diren espezie bakarrak:

Thunnus albacares eta Thunnus obesus: atun argia edo atuna

Katsuwonus pelamis: atuna

## **IKUSKAPENA POLITIKA HAU BETETZEN DELA EGIAZTATZEKO**

Eroski taldeko atun- eta hegaluze-kontserben hornitzaile orok agiri honetan jasotako neurri guztiak betetzen dituela bermatzeko helburuarekin, behar diren ikuskapenak eta DNA azterketak egingo dizkiegu gure dendetan saltzen ditugun sortei, kanpo-enpresa ziurtagiri-emaitzen bitartez (MRAG eta AZTI, kasu). Egin beharreko dokumentu-kontrol horiei dagokienez, AZTIk egindako galdetegi orientagarria erantsi dugu.

**Ikuskapen-enpresak:**

<https://www.mragamericas.com/services/seafood-traceability/>

<http://www.azti.es/es/>





## **ARAU HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**

Erosketa-politika hori betetzen dela bermatzeko, Eroskik egiaztatzeko ikuskapenak egingo ditu AZTI edo MRAG kanpo-enpresekin. Arau-hausterik balego, Eroskik enpresa horrekin arrain-kontserben arloan izandako urteko fakturazioaren % 5arekin zigortzeko eskubidea du. Halaber, Eroskik merkataritza-harremana amaitutzat eman dezake, arau-haustearen larritasunaren arabera. Adibidez, lata baten lotea tamaina handiko (335 m3-tik gora) inguraketa-ontzi bati erositako arrainarekin egin bada eta itsasontzia PVRn ez badago, IUU zerrendan agertzen bada edo Tailandiako fabrika batetik badator, arau-hauste oso larria izango da hori.

### **Estekak:**

#### **Eroski eta SA 8000:**

<http://www.eroskicorporativo.es/eroski-renueva-su-certificacion-sa8000-que-ratifica-su-compromiso-con-los-derechos-laborales>

<http://www.eroskicorporativo.es/eroski-garantiza-el-origen-sostenible-para-toda-su-gama-de-conservas-de-atun>

#### **Lanaren Nazioarteko Erakundeak onartutako arrantza-hitzarmena:**

[http://www.ilo.org/dyn/normlex/es/f?p=NORMLEXPUB:12100:0::NO::P12100\\_ILO\\_CODE:C188](http://www.ilo.org/dyn/normlex/es/f?p=NORMLEXPUB:12100:0::NO::P12100_ILO_CODE:C188)